



**EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS**

EUDELen Batzarrak udal legea, kudeaketa energetikoa eta tokiko eremuko etxebizitza babestua aztertu ditu gaur Bilbon

- **Eudelen Batzarrak ehun alkate baino gehiago bilduko ditu gaur Euskalduna Jauregian, laneko jardunaldi trinko batean.**
- **Udal Legeari buruzko proiektua Eusko Jaurlaritzaren eskuetan dago gaur egun, eta, laster, proposamen bat igorriko digu, Eusko Legebiltzarrera bidali baino lehen.**
- **“Alkateen Ituna” sinatu dela jakinarazi zaio Batzarrari. Horren arabera, CO2 isurpenak %20 murrizteko konpromisoa hartuko da 2020rako.**
- **Batzarra egin baino lehen, lan-tailer bat egon da Zuzendaritza Agintariko eta Lurralde Batzordeetako ordezkariekin. EUDELeK udaletan abiarazitako etxebizitza ereduari buruzko iritzia jakitea zuen helburu tailerrak.**
- **Udalerri Txikien Batzordeak Eudelek landu beharreko jarduera ildoak aurkeztu ditu, 2.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriek kudeaketa eraginkorra izaten jarrai dezaten.**

Bilbao, 2010eko apirilaren 30a. EUDEL-Euskadiko Udalen Elkarteak gaur egin du bere Urteko Batzarra, Bilbon. Lansaio luze batean, 8:30ean eman diote hasiera batzarrari, etxebizitzari buruzko tailerrarekin, eta, ondoren, ohiko bilerari ekin diote.



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

Gisa horretan, egun osoan zehar, bertaratu diren alkate guztiek etxebizitzari, Udal Legeari eta “Alkateen Itunari” buruz jardun dute, bai eta udalerrri txikien egoerari buruz ere.

Udal Legeari dagokionez, Eudelek egin ditu dagoeneko egin behar zituenak. Proposamena Eusko Jaurlaritzaren ardurapean dago, proiektua gauzatu eta guri igortzeko. Azkenik, Eusko Legebiltzarrak izapidetuko du. Urrats hori medio, Euskadik, 30 urteren ondoren, babes arau-emailea emango die udalei. Eudelentzat, berriz, Lege honek Euskadiko mapa instituzionala ixtea ahalbidetuko duen beharrari erantzuten dio. Hala, bada, udalerrriak ere herriaren hirugarren ardatz gisa hartuko dira aintzat, eta euren instituzioak izango dituzte.

Alkateen Ituna

Beste alde batetik, Eudel bileraz baliatu da EEE-Energiaren Euskal Erakundea bultzatzen ari den ekimen europarra ezagutarazteko. Ekimena kudeaketa energetikoaren gaineko Itun batean gauzatzen da, hain zuzen ere, “Alkateen Ituna” deritzon itunean. Tokiko Gobernuari egiten zaien ohartarazpen batean datza, energia aurreztu, energia berriztagarriak ekoitzi eta, batez ere, 2020. urterako CO2 isurpenak %20 murrizteko konpromisoak har ditzaten. Ekimenak Europar Batasunaren sustapena du eta udalek klima aldaketan Europa eta mundu mailan daukaten konpromisoa islatzera dator.

Alkateen Itunak udal kudeaketa guztia hartzen du kontuan energiaren alorrean, eta, bereziki, argitazpena, eraikinak, zerbitzuen kudeaketa eta mugikortasun esparruei eragiten die, besteak beste.

Etxebizitza

Batzarra aprobetxatuz, EUEDELe laneko tailer bat antolatu du, alkateen eta udal ordezkari politikoen zuzeneko solasaldia ahalbidetzea xede duena. Izan ere,



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

azterketa egin nahi da udal etxebizitzaren egoeraren gaineko iritziari buruz. Krisi ekonomikoak eta higiezinaren krisiak eragin garrantzitsua izan dute gure herri eta hirien hiri-garapenean. Horregatik, bada, beharrezkotzat jo da etxebizitzaren esparruko udal zerbitzuen dimentsioa eta indarra ikustea (batez ere, une honetan eta udal legearen proposamenak defendatzen dituen planteamenduen testuinguruan), erakunde publikoen nahiz udalen konpromisoa sendotzeko, hiritarrek eskatzen dituzten politika eta zerbitzuekin.

Laneko prozesu honen helburua, beraz, udalek auzi honen gainean duten iritzia jakitean datza. Modu horretan, udalek udal etxebizitzaren esparruan agertutako interesak koordinatu ahal izango dira, beharrezkoa den adostasunaren bilaketan eta udalekin beraiekin lan egiteko.

Udalerri txikien egoera

Euskadin 2.000 biztanle baino gutxiago dituzten 148 udalerri daude, hau da, EAEko %58,96. Guztien artean, 114.000 biztanle dira, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren %5,25, eta lurraldearen erdia baino gehiago hartzen dute.

Zerbitzuak hiri handietan ezartzen diren bezala, gune txikiak ere zenbait zerbitzuekin hornitu behar dira, biztanleak gune horietatik alde egin, zahartu eta hiri handiek biztanleak etengabe polarizatzea lortu nahi ez bada. Horregatik, Eudelen, udalerri txikien batzordea jarri genuen martxan, eta, urteak pasa ahala, oso proiektu interesgarriak lortu ditu: gas-sareak landa eremuetan, banda zabala EAE osoan ezartzea, Lurreko Telebista Digitala lurralde osora eramatea... Aurrera egin guran, Eudelen udal txikien batzordeak jarduera ildo berriak aurkeztu dizkio Batzarrari, kudeaketa eraginkorra egin eta baliabideak optimizatzen jarraitu dezan. Plan honen funtsezko ardatzak, besteak beste, honako hauek dira: mugikortasuna eta irisgarritasuna, gizarte-beharrizanak, bizitza-kalitatea, azpiegiturak, udalerri txikien baliabide eta balioak aintzatetsi eta baliatzea, ordezkartza, dinamizazioa eta kudeaketa.